

B

BARREN

TOKIKOM

Ilustrazioaren magia

Iban Barrenetxea



DANOBATGROUP



GOIMEK

Doitasun handiko mekanizazioan puntakoa den kooperatibak honakoa behar du:

PLANEADORE EDO ARTEZKETA LAUETARAKO LANGILEA

ESPERIENTZIADUNA
(Erref: RP_11)

LANPOSTU PROFILA: Artezketa Lauetarako makina handiak eta doitasun handiko bukatze lanak menperatu eta esperientziaduna. Piezak neurtzeko egiaztatze tresnak erabiltzen jakitea.

ESKATZEN DA: Goi mailako heziketa zikloa, antzeko postu baten esperientzia izatea, euskera, ekimena eta taldean lan egiteko gaitasuna.

ESKEINTZEN DA: Lanpostu finkoan berehala hastea eta esperientziaren araberako ordainsaria.

Interesa duzuenok, bidali CVa Debado 5. Posta Kutxatilara edo goimek@goimek.es postara 2011ko Maiatzak 27a baino lehenago, (REF: RP_11) adieraziz.

LAGUNAK KOLTZOI DENDA- TEXTIL HOGAR

**KOLTZOI AUKERA HANDIAGOA DUGUI! TORRI ETA %25ra ARTEKO
BEHERAPENA IZANGO DUZU KOLTZOI ETA OHE KUTXETAN!**

Koltxoi marka guztiak ditugu, bilatzen duzuna ez baduzu hemen topatzen ekarri egingo dizugu.
Anima zaitetz, eta zatoz bisitan.



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Distropikitas

OLDSAN

terxy

Oihana
Ohe geriatrikoak

KEYTON
Masajedun besaukiak





**Joanes
Rodriguez**

Urteak pasatu direla dirudi azken aldiz elkarri idatzi genionetik. Azken emailan esaten zenidan argazkitan bakarrik ikusten ninduzula, eta hala da. Azken hilabetea Kalifornian barrena ibili naiz bidaiatzen. 28 egun besterik ez dira izan, baina hango errealitatea ezagutzeko aukera bikaina izan da.

Unibertsitatean ikasten nabilen graduari esker, Lidergo ekintzailea eta berrikuntza (LEINN) Mondragon Unibertsitatean, urte gutxian munduaz beste kontzeptu bat sentitzeko aukera izaten nabil; Finlandian hasi ginen, Kalifornia orain, Txina eta India datorren urtean... Hau geldiezina da.

Batzuetan, munduan barrena bidaiatu behar izaten da benetan garrantzitsua denaz konturatzeko; erabakitze eskubidea, gosea, ura, maitasuna, errespetua... Gure txikitasunetik handiak garelako esan dezakegu, Lazkao Txiki bezala, baina euskaldunok asko daukagu ikasteko, benetan gure errealitateaz gain mundua ere aldatu nahi baldin badugu. Europa, Afrika, Estatu Batuak... eta oraindik ere txoko asko geratzen zaizkit ezagutzeko, baina argi daukat nire etxea, aberria eta kuttuna, Euskal Herria dela.

“Pentsatu prisarik gabe, baina ekin geratu gabe... Alda dezagun geroa!”

Hala ere, eta *jetlag*-a pasatzen nabilerarik, erronka gogorrak dauzkate etorkizunera begira; pertsonalak zein herriari begirakoak.

Azken finean, Ghandik esan zuen bezala, gure garaipena ez da ondorioa, egindako lana baizik. Lan gogorra garaipen osoa da. Pentsatu prisarik gabe, baina ekin geratu gabe... Alda dezagun etorkizuna! Baina guztion artean... edo?



**Maialen
Arnedo**

Kaliforniara egindako bidaiak zer pentsatu eman dizula ikusten dut, Joanes. Beti izaten dira mesedegarri horrelako bidaiak, bisitatzen duzuna ezagutzeaz gain, detaile txikiez gozatze-ko parada ere izaten delako. Zeure burua hobeto ezagutzeko aukera polita izan daiteke. Izan ere, zeuk ondo esan duzun moduan, errealitate ezberdinekin egiten dugu topo artifiziala den mundu honetan.

“Benetan posible al da guztion artean geroa eraikitzea?”

Eta errealitate ezberdinak dauden bezala, etorkizuna irudikatze-ko era diferenteak ere badaude. Bakoitzak bere modura bizi du egoera bakoitza, eta bere erara konpodu nahi du. Hortaz, benetan posible al da guztion artean geroa eraikitzea?

Izan da azkenaldian prisarik gabe pentsatu eta geratu gabe ekinean jardun duenik. Bildu dira batzuk aspaldi honetan eta etorkizun berri bat eraiki nahian, ondorengo Euskal Herria marrazten hasi dira. Arrazoi izango duzu agian; lan gogorra garaipena izan daiteke, baina nori ez zaio gustatzen ereindakoaren fruitua jasotzea?

Elkarlana; horixe da hitza. Aldaketa baten beharra ikusten duenak aldaketarako aurrepausoak emango ditu, bidean aurkituko duenak kokildu barik. Oztopoak-oztopo eta hanka biak lurrean izanda, gauza asko lortu daitezke. Pesimista naizela pentsatu izan dut askotan, baina garai berri honen esperoan irribarretsu begiratu nahi diot datorrenari!



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar



MINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilon, 2 - 3.sotua 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

IBAN BARRENETXEA

ILUSTRATZAILEA

Iban Barrenetxeak (Elgoibar, 1973) beste jauzi bat eman du bere ibilbide profesionalean. Diseinu grafikoaren mundua albo batera utzi eta ilustrazioan barneratu da. Eta ez edonola, gainera. Bi urte inguru daramatza testu-liburuei irudiak jartzen, eta dagoeneko, ilustratzaile onentsuenen artean lekua egitea lortu du: *El Mundo* egunkariko asteburuetak gehigarrian egindako erreportaje baten arabera, Estatuko hamar ilustratzaile onenen artean dago elgoibartarra. Irakurtzea, idaztea eta marraztea ditu gustuko Barrenetxeak, eta beste idazleen lanak ilustratzeaz gain, bere liburuak ere sortzen ditu Barrenetxeak. Orain arte hiru liburu argitaratu ditu, eta beste bi laster kaleratuko dira. Seigarren liburuan ari da lanean elgoibartarra.

“Ilustrazioa bizitzeko modu bat da”



Diseinatzaile grafikoa izateari utzi eta ilustrazioaren munduan sartu zara. Noiz eta nola erabaki zenuen jauzi hori ematea?

Beti izan ditut gustuko liburuak, umetatik. Hala ere, ez dut ezer berezirik egin ilustrazioaren munduan sartzeko, prozesua oso naturala izan da. Nolabait esanda, soberan nituen gauzak albo batera utzi, eta aukeratu dudana horixe izan da, ilustrazioa, niri gustatzen zaidana. Zaletasuna lanbide bilakatzea beste

prozesu bat izan da. Noizean behin, denbora librean nuenean, ilustrazioak egiten nituen, eta Interneten zintzilikatzen nituen. Editore eta ilustrazio munduko beste pertsona batzuek ikusi zituzten nire marrazkiak, eta horrek, lan eskaintzak jasotzen hasi nintzen.

Afiziotik ofiziora, beraz...

Bai. Ni ez naiz beste edozein langile baino hobea, baina arteak, musikak edo literaturak duten ukitu mistikoak izugarri betetzen nau.

Jendearengana iriste hori oso polita da, eta, gainera, ni hiltzen naizen egunean nire lana hemen geratuko da betirako. Lanbide bat baino gehiago, ilustrazioa bizitzeko modu bat da. Zorte handia izan dut, eta ilustrazio munduan lagun handiak egin ditut.

Zein desberdintasun dago diseinatzaile grafiko eta ilustratzaile lanbideen artean?

Ez daukate zerikusirik. Publizitate alorreko ilustrazioak harreman gehiago dauka disei-

nu grafikoarekin, baina nik liburuak ilustratzen ditut, bereziki. Niretzako, idazle izatea modukoa da, baina hitzen ordezkirudirik erabiliz. Modu honetako liburuetan testua eta irudien bidez kontatzen da istorioa. Irudia eta testua osagarriak dira, ez da bakoitza bere aldetik joaten.

Zein pauso jarraitzen dituzu liburu bateko pertsonaiak marrazteko?

Ilustratzailearen benetako lana marrazten hasi aurretik hasten da. Ilustrazioa buruan sortzen da lehenengo. Hori da irudimen eta sormen lan garrantzitsua. Gerokoa teknika batzuk aplikatuz marraztea da, baina garrantzitsua buruan ondo irudikatzea izaten da. Nire kasuan, marrazten hasi baino lehen, dokumentazio lan handia egiten dut. Beste norbaiten liburuak ilustratzen dudanean, idazleari buruz irakurtzen dut, bere zaletasunak eta ezaugarriak ezagutzeko.

“Ilustratzaile izatea idazle izatea bezalakoa da, baina irudiekin”

Helduentzako lanak ez dira asko ilustratzen.

Edozein adinetako jendeak irakurtzen dituen liburuak ilustratu daitezke, baina merkatuan bereziki, umeentzako liburuak ilustratzen dira. Helduentzako liburuek ez daukate marrazkirik, baina batzuk hasi dira marrazkiak sartzen. Marrazkiaren garrantziaz jabetu dira, eta oso lan politak egiten hasi dira.

Zein motatako marrazkiak egiten dituzu?

Klasikoa naizela diote kritikoez, eta, egia esan, liburu klasikoak ilustratzea gustatzen

zait, adibidez, *Alicia en el país de las maravillas*. Liburu hori ilustratzeko aukera izan nuen, eta izugarri gustatu zitzaidan. Era berean, beldurra ematen du horrelako klasiko bati irudiak jartzeak. Bertsio asko egin dira, eta zaila da zeozer berria asmatzea. Egia esan behar badut, zaila egiten zait nire marrazkiak deskribatzea. Ordu asko ematen ditut marrazki bakoitzaren aurrean, eta argitaratu ostean ere, akats pila bat ikusten dizkiet. Oso zorrotza naiz nire lanarekin.

Zenbat denbora behar izaten duzu ilustrazioak egiteko?

Ilustrazioaren munduak daukan alderik txarrena da denbora. Etxean daukat estudioa, eta askotan, gosalduta aurretik detaleren bat marrazten jartzen naiz, eta bi ordu joaten zaizkit. Asteburuetan atseden hartzea derrigortu dut nire burua. Lanbide oso polita da, baina lan guztiak epe oso laburrean egin behar izaten dira. Oso zaila da marrazki bat amaitu eta emaitzarekin pozik geratzea. Beti dago zer hobetu, eta beti ikasten dituzu gauza berriak. Liburu bakoitza lehenengo izango balitz bezala hartzen dut, ilusio handiz. Ilusioa ez da galdu behar, bestela, marraztea lan mekaniko bilakatzen da. Marrazki batzuekin astebete pasatu izan dut, baina hori ez da praktikoa. Normalena marrazki bakoitzari pare bat egun eskaintzea izaten da. Industria bezala, oso estresantea da, epeak oso motzak izaten direlako. Lan batzuei ezetza eman behar izaten diet, eta horrek pena ematen dit, baina ezinezkoa da denak hartzea.

Eskuz ala ordenagailuz marraztea gustatzen zaizu gehiago?

Bi teknikak gustatzen zaizkit. Lehenengo liburuak, *El cazador y la ballena*, eskuz egin nuen koloretako arkatzeekin, baina azkenaldian gehiago marrazten dut digitaletan.

Epeak betetzea errazagoa egiten zait, azkarrago marrazten dudalako, eta detaileak hobeto lantzeko aukera ematen dit, nahi duzun beste handitu daitekeelako irudia. Ordenagailuak ere baditu desabantailak, baina nire ustez, gehiago dira erraztasunak. Momentu bakoitzean marraztu behar dudaren arabera, teknika egokiena aukeratzen saiatzen naiz.

“Nik idatzi eta ilustratutako liburu bat argitaratu nahiko nuke urtero”

Beste idazleen lanak ala zeuk egindakoak ilustratzea gustatzen zaizu gehiago?

Biak dira interesgarriak, baina nahiago dut nire testuak ilustratzea. Idaztea ere gustuko dut, eta testua eta irudia kontrolatzeak aukera asko eskaintzen du. Beste autoreen lanei irudiak jarri eta liburuari nire ikutua ematea ere polita da.

Aurrera begira, zein dira zure proiektuak?

Jendeari gustatzen zaion bitartean ilustratutik bizitzea da nire nahia. Une honetan nire lanen erakusketa bat dago Italian zehar, eta urrian, Bratislaban (Eslobakia) beste erakusketa bat egingo dut. Urte honetan nik ilustratutako beste bi liburu argitaratuko dira, eta orain beste liburu bat ilustratzen ari naiz. Horrez gain, gustatuko litzaidake nik idatzi eta ilustratutako liburu bat argitaratzea urtero.

Ainhoa Andonegi



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu
Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



EL GOBIERNO VASCO



MENDAROKO UDALA



AIRE ANE ET ERREKIA



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Pintadak autokarabanetan

Mintxeta inguruan aparkatuta zeuden bi autokarabanetan pintadak egin zituzten spray batekin joan zen astean. Ez dakigu zergatik egin dituzte. Baliteke pertsona horrek ez onartzea autokarabana bere auzoan aparkatzea, baina ez dugu uste inori kalte egiten diogunik. Guk ere ordaintzen ditugu ibilgailuaren aseguru eta Udal zerga, eta jarrera hori lotsagarria iruditu zaigu. Hitz egiten gauzak konpondu daitezke.

I.U. ©

Eskerrik asko

Lehenengo urtea zen Mendaron mendiko lasterketa antolatzen genuela eta bagenuen zelan irtengo ote zen kezka, baina zuei guztioi esker lortu dugu itxurazko proba bat antolatzea. Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuegu gugan sinetsi eta Mendaroko I. Mendi Lasterketa babestu duzuen guztioi: Mendaroko Udala, Birstain Logistika Banaketa, Alzolako Urak, Diario de Noticias, Uztargi eta Lerun tabernak, Mendaroko Morroskillo, Art Fruit eta Elkar autozerbitzuak dendak, eta Iriondo Kirolak, GYS Astigarraga Sport eta Askasibar Intersport kirol dendak.

Eskerrik asko, era berean, batera zein bestera proba hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker ibilbidea bera aukeratzeko eta markatzen lagundu zenigutenoi, bide bazterrak zaintzen egon zinetenoi, anoa postuetan egotea egokitu zitzaizuenoi, baserritarrei, Azibar aroztegiari, parte-hartzaileei, eta Leire Rubio eta losu Juaristiri, diseinu eta argazkilari lanak egiteagatik.

Mendaroko Txirrindulari Elkarte ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutunegilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



ESKERTZA

JOSEFA PROL CRISTOBO

2011ko maiatzaren 8an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

MANUELA ARAKISTAIN IRIONDO

2010eko maiatzaren 17an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, igandean, maiatzak 15, eguerdiko
12:00etan Garagartzako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

GURUTZ GASTEAIN RODRIGUEZ

*Gure ondotik joan zara,
baina betirako izango zaitugu
gure bihotzean.*

2011ko maiatzaren 8an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



X. URTEURRENA

MONICA AIZPITARTE COLINA

*Zure lagunak ez zaitugu inoiz ahaztuko,
betirako gure bihotzetan.*

Lagunak.

Iruiturri ingurunea txukuntzeko lanak hasi ditu Elgoibarko Udalak

Ura bideratu eta zuhaitzen adarrak moztuko dituzte

Iruiturri ingurunea txukuntzeko lanak hasi ditu Elgoibarko Udalak. Oso hezea eta iluna da Iruiturri ingurunea, eta besteak beste, ihes egiten duen ura jasotzeko lanak egingo dituzte. Horrez gain, zuhaitzen adarrak moztuko dituzte, ingurunera argi gehiago sartu dadin. Era berean, hesi berriak jarriko dituzte, animaliak eta motorzaleak Hiru-Iturrira ez sartzeko. Azkenik, mahaiak eta aulkiak margotuko dituzte. Obra horiek Debemen elkarteak egingo ditu, Udalaren enkarguz. Alfredo Etxeberria alkateak esandakoaren arabera, maiatzaren 21erako amaituta egongo dira lanak, Elgoibarko Mendi Itzuliko partaideak handik pasatzen direnerako, alegia.



Hasi dituzte Mintxetako spinning gela berria egiteko obrak



Mintxetako harmailen eta padel pistaren artean spinning gela berria egiteko obrak hasi ditu Udalak. Lanik astunenak igerileku denboraldia hasi baino lehen bukatuko dituztela aurreratu du Alfredo Etxeberria alkateak, herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Gela berriak 100 metro koadro izango ditu, eta 50 bizikleta jarriko dituzte erabiltzaileen eskura. Gelaren bi hormetan kristalezko leihoak jarriko dituzte, eta, ondorioz, oso gela argitsua izango da. Obra horrek 152.000 euroko aurrekontua izango du.

2012ko ekainerako prest egongo da Toletxeko igogailua

Alfredo Etxeberria alkateak esandakoaren arabera, 2012ko ekainerako prest egongo da Pedro Muguruza eta Gabriel Krutzelaegi kaleak lotuko dituen igogailua. Pedro Muguruzak parkean jarriko dute igogailua, iturria dagoen inguruan. Igogailu horri esker, gaztelekurako, ludotekarako eta ikastolarako irisgarritasuna hobetuko dela azaldu du Etxeberriak.

Altzolako obrak esleitzeko deialdi publikoa egin dute

Aldundiak 618.000 euro inbertituko ditu Altzola zeharkatzen duen N-634 errepidearen zatian, trafikoa "arindu" eta bide segurtasuna hobetzeko obratan. Egunean 10.300 ibilgailu pasatzen dira gunehorretatik, eta ibilgailu horiek polikiago ibiltzeko neurriak hartuko dituzte. Era berean, autobus geltokiak egokituko dituzte bi norabideetan, zubia bertutuko dute eta Bainuetxeko Zumardiarekin lotura erraztuko da. Proiektua dagoeneko onartuta dago, lanak lehiaketara atera dituzte, eta aukeraketa egin ostean, lau hilabete izango dituzte obrak egiteko. Aldunditik jakinarazitakoaren arabera, aurtan amaituko dituzte lanak.

Ekitaldia **Pleno txikia**



Kontsumo jasagarriaren gaia landu dute Elgoibarko hainbat ikaslek Eskolako Agenda 21 programaren baruan, eta Elgoibarko herria jasagarriagoa egin asmoz, proposamen ugari aurkeztu zizkieten ikasleek udal ordezkariari. Herri Eskolako, Ikastolako, Arreiturre Institutuko, Mekako eta IMHko ikasleek hartu zuten parte, Alfredo Etxeberria alkatea, Udaleko idazkaria Iñaki Galdos eta Idoia Alvarez Ingurumen teknikariarekin batera. Birziklapenaz, kontsumo arduratsuz eta energia aurrezteaz hitz egin zuten, besteak beste.

Berbia **Ekintzailetasuna**

Maiatzaren 26an ekintzailetasunaren eguna izango da, eta horren harira, hainbat ekintza antolatu ditu Debegeesak. Hilabete osoan zehar autoenplegu tailerrak egingo dituzte eskualdeko herri guztietan, eta Elgoibarkoa hilaren 17an izango da, 12:00etan, KZgunean. Bestalde, Debegeesak emandako datuen arabera, 2010ean hamahiru enpresa sortu ziren Elgoibarren, Enpresa-proiektu Berrientzako Laguntza Zerbitzuari esker.

Irudia **Emakumeen topaketa interkulturala**

Emakumeen topaketa interkulturala egin zuten joan zen zapatuan Kultur Etxean, eta guztira, 59 emakumek hartu zuten parte. Antolatzaileak oso gustura geratu dira Debarrenako Emakumeen Lehen Topaketa interkulturalak izan duen harrerarekin, eta, arrakastatsutzat jo dute lehen esperientzia izan dena. Taldeka lan egin zuten, eta, besteak beste, ondorengo premiak atzeman zituzten: Berdintasunean oinarritutako hezkuntza bultzatzea, genero arrazoiengatik diskriminazio kasuak ezagutzera ematea eta oinarritzko eskubideak bermatzea.



Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finalak

Asteburuan jokatuko dituzte Elgoibarko dantzariak Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finalak. Nesken txanda izango da domeka honetan: Ane Espilla, Andrea Arregi, Alaitz Egaña, Iraitz Gonzalez, Miren Astigarraga, Leire Astigarra dantzariak Hondarribian leihatuko dira. Mutilen txanda maiatzaren 28an izango da, Erreterian, eta han, Joseba Astigarraga, Julen Guillo eta Aitor Asenjok hartuko dute parte.

Trinitate jaietarako spot-a grabatzeko deia egin du Gazte Asanbladak

Elgoibarko Gazte Asanbladak spot bat grabatuko du Trinitate Jaietako egitaraua iragartzeko. Ahal duten jende gehiena batu nahi dute Gazte Asanbladakoek, eta parte hartu nahi duten guztiei datoren domekan, 16:00etarako, plazan agertzeko deia egin diete. Trinitate Jaiak ekainaren 17tik 19ra ospatuko dira.

Errioxara bidaia egingo dute 1946an jaiotakoek

1946an jaiotako elgoibartarrek Errioxara egingo dute irteera, datoren maiatzaren 21ean. Interesatuek 60 euro ordaindu beharko dituzte Kutxako kontu korrante honetan, maiatzaren 20a baino lehen: 2101 0036 69 0127862597.

Odol ateratzeak

Gipuzkoako Odol Bankua gaur etorriko da Elgoibarrera, eta 18:30etik aurrera egingo dituzte odol ateratzeak. Elgoibarko odol emaleen elkarteak gazteei dei egin die odola ematera joateko deia.

Ikasketa gela, Kultur Etxean


Azterketa garaia iristear dagoela-eta, Udaleko Kultura Sailak ikasketa gela jarri du Kultur Etxeko so-toan. Uztailaren 8ra arte egongo da zabalik, 9:00etatik 21:00etara.

Alderdi politikoak maiatzaren 22ko Udal eta Foru Hauteskundeetarako kanpaina egiten ari dira. **Hauteskunde kanpainak balio du botoa nori eman erabakitzeko?**



Miguel Angel Hidalgo
37 urte, soldatzailea

Nire ustez, alderdi politiko baten jarraitzailea denak hari emango dio botoa, kanpaina gehiegi jarraitu gabe. Akaso dudan dagoen norbait konbentzitu dezakete, baina, nik, behintzat, ez dut kanpaina jarraitzen. Dirua alferrik gastatzea iruditzen zait. Azken urteotan bozkatzera ere ez naiz joan.



Gabriel Peñafiel
39 urte, biltegiko langilea

Tamalez, bai. Jendeak ez du gehiegi pentsatzen, eta, askok kanpainen esaten den guztia sinisten dute. Ahaztu egiten zaie legealdiko lau urteetan gertatu diren gauzak. Politikoei badakite nola eragin jendearengan, eta azken orduko obrekin, adibidez, herritarren iritzia aldatzen dute.



Beñat Arriola
18 urte, ikaslea

Nik uste dut bakoitzak bere ideiak finkatuta izaten dituela eta zaila dela botoa aldatzea. Nik, behintzat, ez dut gehiegi jarraitzen hauteskunde kanpaina. Dirutza handia gastatzen dute kanpainan, eta krisi egoera honetan aurreztu egin beharko lukete.



Ibon Zubiate
35 urte, zaindaria


Nik uste dut gehienek erabakita izaten dutela botoa. Nik behintzat ez ditut sinisten politikoei kanpainan zehar egiten dituzten promesak. Urtero pasatzen da gauza bera. Hau egingo dutela, bestea egingo dutela, eta azkenean ez dute ezer egiten.

■ SEMAFOROA




Eguen goizetan Sigmako aparkalekuko argi guztiak piztuta egoten dira: “Denbora asko pasatu da Udalak ostegunetako azoka Plaza Txikira eramán zuenetik, baina Sigmako aparkalekuko argiak piztuta egoten dira egunero. Merkadilloak irauten zuen denbora guztian egoten dira argiak piztuta. Inor ez da arduratu hori aldatzeaz, eta lotsagarria iruditzen zait. Dirua aurreztu behar dela diote, baina gero ez dituzte beharrezko neurriak hartzen. Argi horiek egunez ez pizteko eskatzen diot Udalari, eta herritarren dirua hobeto zaintzeko. Mila esker”

Autopistarako sarreran bidea zuloz beterik dago: “Lotsagarria da autopistarako sarreraren bidea zuloz beterik dagoen modua. Sekulako zuloak daude lurtean aspalditik, eta gero eta handiagoak dira, gainera. Autopistako peajea izugarri ordaintzen dugu, Udaleko zergak ere ordaintzen ditugu, eta ez dut uste erabiltzaileok horrelakorik merezi dugunik. Egunero-egunero auto eta kamioi pila bat pasatzen dira bide horretatik, eta konpondu beharra dago. Ez dakit Udalari edo Foru Aldundiari dagokion hori konpontzea, baina gutxienez, tramiteak bideratzeko eskatu nahi diogu Udalari”.



Zuen kezak, galderak edo txalokak bidaltzeko:
barren@egoibarforoa.com 943 744 112



- 1. Hiritarren parte-hartzeari dagokionean zer nolako balantzea egiten du zuen alderdiak? Elgoibartarrek badute aukerarik udal bizitzan parte hartzeko?**
- 2. Kontseiluak euskararen inguruan egindako azkeneko neurketan Elgoibarko Udalak “ez nahikoa” lortu du. Zein da zure alderdiak jarraituko duen hizkuntza politika, bereziki euskarari dagokionean?**
- 3. Alderdien programetan adineko pertsoneri tarte berezia eskaini izan zaie azkeneko legealdietan, beharbada populazioa bera ere zahartzen doalako. Hala ere, zer da zuen alderdiak boto emaile gazteenei eskaintzen diena?**
- 4. Altzolaz gain, bost baserri auzo ditu Elgoibarrek. Zer da auzo horietako herritarrek zuengandik espero behar dutena?**
- 5. Krisiak bete-betean jo du Elgoibar ere, eta egoera zaila bizi dute herritar askok. Krisiaren kontrako zein neurri hartzea aurreikusten duzue?**
- 6. 2000. urtean hamalau etorkin zeuden Elgoibarren erroldatuta. Aurtengo urtarrileko datuei begiraturaz gero, berriz, Elgoibarren erroldatutako etorkinak 771 dira. Immigrazioari dagokionean, zein da jarraituko duzuen politika?**



ALFREDO ETXEBERRIA
EAJ

“Tokiko industria hemen gera dadin lan egingo dugu”

1. Hiritarren partaidetzaren bitartez, ondo-ko proiektuak bideratu ahal izan dira: Bizikidetzaren inguruko diagnosa eta ondoren egin zen Ekintza Plana, Kirol instalazioen definizioa, Gazteek erabiltzen dituzten lokalak eta HAPOren faseak. Adibidez, gazteek el-kargune bezala erabiltzen dituzten lokalen inguruan egindako galdeketa izandako parte-hartzea goraipatu dezakegu. Guztira, 300 herritarrek baino gehiagok hartu dute parte, gehienak gazteak, eta haien erantzuna oso interesgarria izan da. Hiritarren parte-hartzea sustatzeko ahalegin handia egin da, eta, batez ere, informazioa herritar guztiengana iristea bermatu nahi izan da. Hiritarren eta administrazioaren artean elkarlan eta parte-hartze kultura sortzeko urratsak eman direla

uste dugu. Hiritarren inplikazioa goratu behar dugu. Hiritarrek ekitaldi eta ospakizun desberdinetan parte hartu dute, bai taldeka edo banaka, horiek antolatuz edo zuzenean parte hartuz. Egin duten lana eta izan duten inplikazioa ordainezina izan da. Mila esker.

2. Euskararekiko motibazioa eta haren eza-gutza, erabilera eta kalitatea bereziki sustatu nahi ditugu, euskararen normalizaziorako bidean tresna baliagarriak diren heinean. Hemen, norbanakoaren ekarpena ezinbestekoa da. Euskara erabiltzeko motibazioan goiari eutsi behar diogu, eta eguneroko zeregine-tan euskaraz aritu.

3. Ekipamendu bat behar dugu gure gazte-en inplikazioak, ekimenak, sormenak eta nahiak guztiontzako hobekuntzak ekar die-

zazkiguten. Gazteekin egindako azterlanen eta proiektu pilotuen ondoren, ekintzailtzan eta haien autokudeaketarako trebakuntzan aurrera egin nahi dugu. Haien ideiak proiektu bihurtzeko eta horiek jarduera bilakatzeko gai izan nahi dugu. Lankidetzaren horren oinarriak diseinatzeko lanean ari gara, elkarbizitzatik, inplikaziotik, elkarlanetik, eta espazioak eta ametsak partekatuzetik abiatuta.

4. Bizilekuak ez du herritarrek gugandik espero dutena desberdintzen. Bizilekuaren arabera behar desberdinak egon daitezke. Horregatik, EAJK beti izan du landa ingurune-ko auzotarrek harremanetarako pertsona bat izendatuta. Hurrengo legealdian ere hala egingo dugu, beharrei erantzuteko.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia




5. Tokiko industria hemen gera dadin eta gure artean sektore berriak ezar daitezzen ahalbidetzeko lan egingo dugu. Lanbide Heziketaren eta Txandakako Ingeniaritzaren alde jardungo gara. Egiten dakigun horretan eraginkorrak izan behar dugu, eta sortzen diren aukerak baliatzeko gai izan. Industria erakargarria nahi dugu, ezagutzak kanpora ihes egin ez dezan. Horretarako, gure asmoa zera da: prestakuntza indartzea, bai Lanbide Heziketan, bai Musika Eskolan, eta bai Txandakako Ingeniari-

tzan. Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko elkarlana bultzatzen jarraitu behar dugu. Udalaren lankidetzaz bultzatu diren eta dagoeneko abian dauden ondorengo proiektuen ereduarekin jarraitu dugu: Asmaola, Anateusk, Txandakako Ingeniaritza... Jarduera ekonomikoetarako lurzorua eskuratzeko erraztasunak eman eta gaur egun dauden pabilioiak enpresa berriak ezartzeko erabiliko ditugu. "Zementuan" gastatu beharrean, eraginkortasunean gastatzeko garaia

da. Baliabideak ekipamenduko eta gastu arrunteko inbertsioetara zuzenduko ditugu.

6. Etorकिनak beti mugitu dira lana eta bizikaltate hobea dagoen lurraldeetara. Arlo desberdinetan lan egiteko prest daude, eta prestakuntza egokia behar dute. Beste alde batetik, gizartearekiko betebeharrak daudenez, derrigorra da egoera berrietara egokitu beharra kalitateko elkarbizitza lortzeko. Orientazioa, hezkuntza, inplikazioa eta parte-hartzea lantzea izango dira gure betebeharrak nagusiak.



OVIDIO CAMPELLO
PSE-EE

"Lanpostu berriak sortzea izango da gure lehentasuna"

1. Kasu honetan gure balorazioa negatiboa da. Egia da hainbat alorretan aurrerapausoak eman direla, esate baterako, gazteen lokalak gaian edo arau subsidiarioetan, baina bestela, EAJK ez du bete herri araudi organikoa aldatzeko konpromisoa.

2. Euskara 21 ponentziaren ondorioak onartzen ditugu, eta euskararen erabilera sustatzeko planak proposatuko ditugu. Euskarak, osasuntsu egon arren, bultzada emango dioten neurriak behar ditu oraindik, herritarren aukera linguistikoaren kontra egingo ez duten neurriak, hain zuzen ere. Hala ere, ez dugu santzio edo isunik jarriko euskara ez jakiteagatik edo ez erabiltzeagatik. Administrazio publikoek aukeratzen dituzten sustapen neurriek positiboak izan behar dute beti, hau da, libreki euskaraz funtzionatzea erabakitzen duten erakunde, elkarte edo pertsonak saritu behar dira, baina sekula ez dira zigortu behar, euren eskubide osoz, euskara ez erabiltzea erabakitzen dutenak. Euskara ikasi nahi duenari erraztasunak eman behar zaizkio, baina ikasi nahi ez duenari ez zaio inposatu behar.

3. Sozialistok proiektuak gazteekiko konpromisoa erakutsi du azken urteotan, gazteak direlako aldaketen eta denoi era-

giten dizkiguten politiken protagonistak. Gurea bezalako gizarteetan gazteei laguntzea edo gauzak erraztea ez da opari edo pribilegio moduan hartu behar, baizik eta etorkizunerako berme moduan. Egungo egoera ekonomikoa ikusita, gazteak ezinbestekoak dira gure herriak etorkizun indartsu eta osasuntsua izan dezan. Sozialistok ikuspegi gazteko politika garatuko dugu, modernoa eta etorkizunari begira. Gure herriaren etorkizunari dagozkion politikak garatuko ditugu.

Gaurko gazteria ondoen prestatutako belaunaldia den arren, lan egonkor bat eskuratzeko aukera gutxien duena da. Eta ez hori bakarrik; ondo prestatuta egon arren, emantzipatzeko aukera gutxien dutenak dira gaurko gazteak. Neurri handi batean Gobernu Foralen eta herri batzuetako perspektiba faltaren ondorioa da.

4. Euskal sozialistok nekazaritza eta abeltzaintzaren jarraipena defendatzen dugu. Guretzako helburu estrategikoa da. Gure konpromisoa baserri auzoetan egiten den lana goraiatzeko da. Gure asmoa lanerako aukerak, osasunerako, aisialdirako, kulturarako, hezkuntzarako eta prestakuntzarako bideak eskaintzea da. Lehenengo sektore in-

dartsua izango duen landa garapenaren aldeko apustua egiten dugu, hau da, nekazal produktuak produzitu, eraldatu eta merkaturatuko dituenak.

5. Datorren legealdiko lehentasuna izango da guretzako lanpostu berriak sortzea. Horretarako, ondorengo proposamenak ditugu: Lerun Txikiko industrigunea egitea, Arriagako industrigunea handitzea, Ekin ekintzaileentzako zentroa handitu eta garatzea, Anateusk proiektuarekin kolaboratu eta babestea, Asmaola proiektuarekin kolaboratu eta babestea, Pilar ikastetxean nagusientzako egoitza egitea, Txandakako Ingeniaritzarekin kolaboratzea eta babestea, IMH eta Meka bezalako erakundeekin kolaboratzea aipatutako guztiak eta gehiago martxan jarri ahal izateko Mahai Sektoriala osatzea, gazte ekintzaileentzako eta autonomoentzako laguntzak sustatzea.

6. Azken hamarkadan aldaketa nabarmena egon da immigrazioari dagokionean, eta herri gehienetako mapa soziologikoa aldatu egin da. Hori dela-eta, gure Udalaren lehentasuna izango da elkarbizitza eta integrazioa sustatuko duten politikak garatzea.



**JOSE LUIS IBARZABAL
BILDU**

“Tresnak behar dira krisia gehien pairatzen duten sektoreengan eragiteko”

1. Udalaren eguneroko funtzionamendua egokitu egin behar da herritarren parte-hartzea ahalbideratzeko. Ateak zabaldu behar dira, baina hori ez da nahikoa. Askotan keazten gara jendearen parte-hartze eskasaz, baina ezin gara hor geratu. Bitartekoak jarri behar ditugu herritarrek atea zeharkatu dezaten. Lagundu egin behar diegu, informazio zehatza eta eraginkorra garaiz helaraziz eta batzorde eta foro ezberdinetan eragiteko aukera bermatuz. Beharrezkoa ikusten dugu herri kontsultak edo erreferendumak bideratzea, hainbat erabaki hartzeko bide egokiena izan daitekeelako. Udala herriarena da, eta hori egunero frogatu behar da.

2. Bildu osatzen dugunok beti izan dugu euskararekiko konpromisoa, eta horrela jarraituko dugu, uste baitugu euskararen normalizazioaren bidean bere sustapena ezinbestekoa dela, zenbait arlotan jasaten dituen mehatxuak gainditzeko. Elgoibarren daukagun ezagutza maila ona da, baina oraindik asko dago egiteko erabilerari dagokionez, eta batez ere, gazte eta nerabeen artean. Funtsezkoa da euskararentzako guneak irabaztea eta gazteen artean naturaltasunez eta bizitzaren arlo guztietan erabiliko den hizkun-

tza bilakatzea (kirolean, aisian, ...). Beraz, Udaletik, helburu horiek lortzea bideratuko duten politikak bultzatu behar ditugu.


3. Gazteak dira gure herriaren etorkizuna, eta azken urteetan beraien aisialdirako zenbait ekimen aurrera atera badira ere, ez da nahikoa. Gure politikaren ardatza arlo honetan gaztediaren autonomia eta asoziazionismoa bultzatzea izango da alde batetik, eta bestetik, herriko arlo publikoa gazteen parte-hartzeari irekitzea.

4. Auzoek herriguneak bezala beraien garapen propioa behar dute, eta garapen horren diseinuan auzotarrek izan behar dute protagonista. Baserri auzoek, herriko auzoek eta herriguneak garapen orekatua izan behar dute, zerbitzu maila egokiak izan ditzaten maila guztietan.

5. Testuinguru honetan lehenasuna nahi diogu eman gizarte-politikari. Badakigu Udalak dituen bitartekoak mugatuak direla, baina ahal den etekin handiena ateratzen jakin behar dugu. Gardentasuna garrantzizkoa da denon eskubideak bermatzeko, eta gure lehenasunetako bat informazio kanpaina bat antolatzea izango da, norberak eskatu ditzakeen laguntzen berri emateko. Egia da krisia orokorra dela, azken ur-

teotan gogor jotzen ari dela, eta dirudienez gauzak hobetzen hasi diren arren, oraindik bide handia dagoela egiteko. Ekimenak egon dira azken urteotan enplegua bultzatzeko (EKIN, Meka, Asmaola...) eta horietan sakontzeaz gain, batez ere krisia gehien pairatzen duten sektoreengan (gazteak, emakumeak eta etorkinak) eragiteko tresnak behar dira. Horrez gain, herriko enpresa sarea laguntzea, komertzio txikia babestea eta sektore berrien bideragarritasun azterketak egitea izango dira lehenasunak.

6. Etorkinak herri proiektuaren parte egin eta euskal subjektu kolektiboaren parte aktibo bilakatzeko bitartekoak landu behar ditugu: pertsona oro bere eskubide eta arduaren jabe da, eta ez zaigu batere ondo iruditzen krisialdi ekonomikoaren erdian etorkinak Ongizate Estatuarentzat karga direla eta merkaturaren kompetentzia desleiala sortzen dutela dioten pentsamoldea. Beraz, etorkinen kopurua igotzen ari dela ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu errealtate horren diagnosis beraiekin elkarlanean egitea, gero politika egokiak aplikatzen hasteko. Garrantzitsua da Udaleko langileen formazioa eta herritarren kontzientziazioa lantzea.



**JOANES RODRIGUEZ
ARALAR**


“Jakituriaren herria mapan kokatzen badugu, ez da lanik faltako”

1. Daukagun altxorrik handiena herritarrek dira. Antolatzen diren ekintzetako %90 guxtienez herritarren ekimenez egiten dira. Politikari dagokionez, herritarrek oso sentipen

mingotsa daukate Udalaren inguruan, baita politikarekin lotura daukan edozerekin ere. Udalarari dagokio herritarren konfiantza berreskuratzea, baina bi aldeek jarri behar dute eu-

renetik. Hala ere, itxaropen handia ematen didate herrian gertatu diren hainbat gauzak, eta benetan pozgarria da politika lanabesa dela ulertzea, eta erabiltzen jakitea.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



2. Hizkuntza politika gaztelera eta beste hizkuntzen inguruan aplikatu beharko genuke, eta ez alderantziz. Zergatik ez gaztelera teknikaria? edo oraindik hobeto, erdara teknika-ria? Ingelesa, gaztelera, frantsesa, txinera... uztartuko dituenak? Herrian garbi dago euskararen indarra eta presentzia indartu behar dugula eta hezkuntzak garrantzia handia daukala horretan. Alfabetatze maila altua den arren, erabilera da handitu behar dena. Udalak alor honetan asko egin dezake oraindik, baina egindakoa ez da lan makala izan. Fun-tsezkoa da euskararen egoera orokorra eta borroka nazio mailakoa dela ulertzea, eta Udalak ere honetarako lan egin beharko du.

3. Eskaintza herritarrei begira egin behar da: Zahar, gazte, ume... Ni ere gaztea naiz, eta gertutik ezagutzen ditut ditugun beharrak eta nahiak. Gainera, Udalean egon gabe ere, herriari beti eskaini diezaiokegu zerbait. Gazte-ek daukagun arazo nagusienetako bat etxebizitzarena da, ezin baikara etxetik atera gu-rasoen kontura ez bada. Gainera, egoteko

tokiak ere pribilegio bilakatu dira, eta taber-naz taberna ibiltzea desafio latza izaten da patrikarentzat. Beraz, zer eskaini gazteei? Etxebizitza lortzeko erraztasunak, gazteen beharrei erantzuneko dien Gaztetxe berri bat, lokalen egoeraren birplanteamendu bat, libu-rutegi berri bat... Zer eskaini? Zer ez?

4. Lankidetzeta beti ere. Nire ikuspuntutik zorte handia daukate baserri auzoetan bizi direnek, komunitateak sortzen baitituzte eta kasu batzuetan, autogestio maila handia lor-tu ere bai. Gu haien eta elgoibartar guztien beharrak entzun eta asetzeko gaude. Es-kaintza herriari egiten zaio, ez segmentu ze-hatzei.

5. Krisia mundu mailakoa da, eta ez ekono-mikoa bakarrik, baloreak ere krisian daudela-ko. Finean, ez da aberatsago gehiago dau-kana, gutxiago behar duena baino. Bistakoa da gure produkzio modeloak aldaketa behar duela eta egokitzeko gai izan behar dugula. Industrieguneeen handitzea ez da lana sortzea, eraikinak egitea da. Elgoibar erreminta maki-

naren hiriburu izan da, eta urtetako jakituria pilatu dugu. Produkzioa egiten duten gunee-i eta nazioei elkarlana eskaini behar zaie, eta jakituria diru-iturri bezala ikusi. Teknologi zen-troak, energia berriztagarriak... XXI. mendea indartsu ez badugu hasten jai daukagu! Bes-talde, gure ondare naturala ere ustiatzen ika-si behar dugu, ez deuseztatzen. Jakituriaren herria mapan kokatzen badugu, ez da lanik faltako geure herrian.

6. Immigrante asko daukagu herri honetan, ez 771 bakarrik. Nire lagun askoren guraso-ak Galiziatik etorri ziren, beste asko Andalu-ziatik... nire aitaren familia Extremaduratik... eta gaur egun, beraien etxea da Elgoibar. Im-migranteekin jarraitu beharreko politika herri-tar guztiekin jarraitu beharrekoa da. Laguntza behar dutela? Eman. Ez daukate zertan pri-bilegio gehiago izan, baina ezta traba eta zailtasun gehiago ere. Pertsonak dira, ez im-migranteak. Euskaldunok dakigun bezala ja-so behar ditugu eta gure kulturaren besoak ireki beti egin dugun bezala.



JUAN SANCHEZ VALLEJO
EZKER BATUA-BERDEAK

“Gazteen parte-hartzea indartzeko programak garatuko ditugu”

1. Udala herritarrengandik gertuen dagoen administrazio publikoa da, eta datozen lau urteei begira Ezker Batuak erronka handi bat du: Udala herritarrei gerturatu, hurrengo zehazten ditudan proposamen hauek tarteko:

Eraikin publiko eta herriko leku estrate-gikoetan Udalaren inguruko informazioa zabaltzeko guneak jarriko ditugu; herrita-rraren arretarako zerbitzu estrategikoak jarriko ditugu; aurrez aurreko informazioa, telefono bidezkoa eta telematikoa eskainiko ditugu; herritarrek Udal erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten herritarrentzako foroak sustatuko ditugu; Udalaren webgunea indar-tuko dugu, herritarrek informazioa jasotzeko nahiz kontsultak egiteko aukera osoa izan dezaten; auzoetan sor daitezkeen elkarbizi-

tza arazoak konpontzeko, bitartekaritza zer-bitzu bat eskainiko dugu.

2. Euskararen erabilera sustatuko dugu Uda-laren eskumeneko esparru guztietan. Era be-rean, euskararen erabilera urria den lekuetan larrialdi neurriak hartuko ditugu. Elgoibarrek, gainerako udalerriek bezalaxe, Hizkuntzaren Normalizaziorako Plana izango du. Euska-razko eskaintza indartuko dugu Udalak es-kaintzen dituen zerbitzu guztietan, eta eus-kararen normalizaziora bideratuko dugu gu-txienez aurrekontuetan %1,5. Arreta publi-akorako lanpostuetan, berriz, bigarren perfila izatea eskatuko da. Elgoibarko hizkuntza poli-tika Jaurilaritzarekin, Foru Aldundiarekin eta inguruko udalerriekin elkarlanean garatuko dugu. Era berean, pertsona helduak alfabe-tatzeko eta euskalduntzeko programak la-

gunduko ditugu, eta merkataritzan euskara sustatzeko plana garatuko dugu.

3. Gazteen parte-hartzea eta euren arteko lankidetzeta indartzeko programak garatuko ditugu. Gazteriari dagokion gaietan, gazteei zuzenean parte hartzeko aukera eskainiko diegu, eta Gazteria Saileko aurrekontuak lotzeko garaian edota edozein programa gara-tzeko orduan gazteek egiten ari garena jarrai-tzeko aukera izango dute. Gazteen Astea antolatuko dugu, eta gazteentzako lan-pol-tsa sortuko dugu. Era berean, egoera bere-zia bizi duten gazteentzako babestutako etxebizitzak gordeko ditugu, alokairuan ema-teko, eta alkoholaren eta bestelako drogen kontrako kanpainak sustatuko ditugu, pre-bentzio neurri gisa. Aisialdirako klubak indar-tu eta gune berriak ere sortuko ditugu.



4. Landa auzoen arteko komunikazioa hobetzeko eta landa auzoen eta herri guztiaren arteko harremana errazteko ekimenak garatuko ditugu. Egoera zaila bizi dutenentzako laguntzak handituko ditugu, eta baserriko produktuen salmenta handitzeko Udal postuak sortuko ditugu.

5. Udalaren eskumenez haratago doan gaia da krisiarena. Nolanahi ere, Udalak beharrik handieneko herritarrei eta familiei laguntzeko sistema lantzen hasi beharko luke, bai. Udalak sentiberatasun handiago agertu beharko luke behar gorrian direnekin.

6. Pobreziak eta miseriak bere jaioterrik urrunarazi dituenak dira etorkinak, funtsean, eta guk ezkerreko alderdia garen neurrian, haien integrazioa erraztu behar dugu, gauza jakina delako Elgoibar, gure herri hau, aberasten ere lagundu dezaketela.



FRANCISCO JAVIER NUÑEZ
PP

“Udalean herritarren parte-hartzea handitzearen alde egingo dut”

1. Herritarrek duten parte-hartzea eskasa da. Herritarren parte-hartzea sustatu dutela saldu nahi izan dute orain artekoek, baina egon den apurra nahierara erabili eta manipulatu dute. Elgoibartarrek badute Udalean parte hartzeko aukera, baina ez osoa. Hauteskundeetan botoa eman eta euren ordezkariak aukeratzen dituzten momentutik parte hartzen dute. Hemen ez da inor nahierara inoren ordezkari bihurtzen, baina iruditzen zait parte-hartze handiagoa izan beharko luketela. Legegintzaldian zehar ere izan dute herritarrek forotan parte hartzeko aukera, baina beti ere udal gobernuak nahi izan duenean, eta hark nahi izan duen moduan bakarrik. Niretzako hori ez da herritarren parte-hartzea bermatzea.

2. Askok eta luze eztabaida dezakegu Kontseiluaren neurketa horri buruz. Eta ez da momentua, nahiz eta Euskara Sailak egin duen lana babesten dudana. Euskara denon ondarea da. Elkarbizitarako tresna da. Herritar bakoitzaren eskubide pertsonala errespetatu behar da, gure komunitateko bi hizkuntzen ezagutzari eta erabilerari dagokionean. Hori da gure hizkuntza politikaren oinarria.

3. Gure programako ardatza dira gazteak. Gazteei dagokienean, konpondu beharreko lehenengo arazoa lanarena da, eta horretarako, langabeziari aurre egiteko sustatu behar diren ekimen guztiak sustatu beharko ditugu. Bigarren arazo nagusia etxebizitzarena da, eta lehenago eman dizuet gure proposamen baten berri [alokairuko etxebizitza babestuen sustatzea]. Beste arazo handi bat prestakuntzari eta hezkuntzari dagokiona da. Astialdiarena da beste arazo bat, eta hor gazteek nahi beste egitasmo sustatuko ditut, berdin egitasmo herrikoiak izan edo ez. Dagoeneko jaso ditut zenbait proposamen eta horiek gure hauteskunde programan jasoko ditugu. Musika sormenerako eta produktiorako lokala eta kaleko kultura garatzeko espazioa sortzea dira eskakizun horietako bi.

4. Aktibitatea eta enplegua sortzen duen sektorea da landa eremuarena; krisi garaian beste hainbat sektore baino erresistenteagoa dena, eta, horregatik, dagokion garrantzia eman behar diogu. Landa eremuan bizi direnen bizi-kalitatea hobetzeko eta aukera gehiago izan ditzaten lan egin behar dugu. Gurea bezain gizarte urbano batean, herritarrek landa eremu bizi, anitza, biziduna eta ondo zaindua eskatzen dute. Horretarako,

landa eremua garatzeko proiektuak sustatu behar ditugu, kohesio ekonomiko eta soziala bultzatu eta haien eskaerei erantzuteko. Landa eremu gaztea nahi dugu, gazteek euren proiektuak garatu eta etorkizuna eraikitzeko aukera izango duten landa eremua.

5. Gai kezagarria da. Langabeziak gora egin du. Eta zer egin du udal gobernuak orain arte? Udal gobernu hobea proposatzen dut nik, herrian sortzen diren egitasmoak bultzatzeko eta berriak sortzeko bere esku dagoen guztia egingo duena. Lanpostuak eta ongizatea gehitzeko ingurua sortzen lagundu behar du Udalak, eta horretarako, bere esku dagoen guztia egin behar du, eta ez orain arte bezala denbora pasatzen utzi.

6. Nire immigrazio politikaren oinarriko printzipioa zera da: legezotasuna. Askok etorkinen kontra egotea leporatzen didate eta hori ez da egia. Hemendik aurrera politika arduratsuak eta solidarioak sustatu behar ditugu. Etorkinak integratu behar ditugu, baina esku-bidean eta betebeharren berdintasuna betetzen dela ziurtatuta. Kultura ezberdinen arteko elkarbizitza bultzatzeko, integrazioa eta parte-hartzea indartzeko zentro bat zabaltzearen alde egingo dut.





Mendaro

Hona hemen Mendaroko alkategaiek **BARRENEK** egindako galderei idatziz emandako erantzunak. Hamabi galdera erantzun dituzte guztira, baina sei bakarrik argitaratuko ditugu aste honetan, espazio kontuengatik. Gainerako sei galderen erantzunak datorren asteko alean irakurri ahal izango dituzue. Galdetegi hau Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Bildu koalizioa legezkoa dela ebatzi aurretik erantzun zuten guztiek, eta horrek azaltzen du zelako udal gobernua aurreikusten duten galderari emandako hainbat erantzun. Oharra: PSE-EEko eta PPko hautagaien erantzunak erredakzioan euskaratu ditugu.

- 1. Legealdi hau bukatzeaz dago. Zein da egiten duzuen balorazioa? Aurrekoek egindako zer ez zenukete egingo?**
- 2. Zein uste duzu dela herriak momentu honetan duen beharrik handiena?**
- 3. Zer da alkatetza lortuz gero egingo duzun aurreneko gauza?**
- 4. Zelako udal gobernua aurreikusten duzu hurrengo lau urteetarako?**
- 5. Ausartuko al zinateke zure alderdiak zehaztutakotik urruntzen, herriaren mesederako balitz?**
- 6. Etxebizitza politikari dagokionean zein bide jarraituko duzue?**



IRUNE BERASALUZE
EAJ

“Elkarlanean denok Mendaroren alde lan egitea nahiko nuke”

1. Balorazioa positiboa da. Oso legealdi la-saia izan da; udaletxeko talde ezberdinen ar-tean adostasun osoa izan dugu herrian egin diren proiektu nagusietan, eta gauza asko egin ditugu. Adibidez: oinezkoentzako zubia guztiz berritu, Mendaroko lehen haurtzainde-gia egin eta ireki, Gaztelekua ireki, Santana-ko igoera eta horma berritu, kale eta urbani-zazioetan hobekuntza ugari, aparkalekuak, udal eraikinetan obra eta egokitzapen ugari, energia aurrezteko hainbat jarduera, batez ere argiteri publikoa berrituz herriko puntu askotan, Berdintasun Plana onartu, Tokiko Berrikuntza Agenda ere egin dugu... Oso le-gealdi emankorra izan da, krisiak bete-bete-an harrapatu gaituela ahaztu gabe.

2. Gure ustez, kirol instalakuntza gutxi ditu-gu, eta herriaren neurria ikusita, oso zaila da kiroldegi bat mantentzea. Horregatik ikasto-lan daukagun kirol kantxa berritu eta estal-tzea aukera ezinhobea izan daitekeela pen-tsatu dugu, eta horren alde egingo dugu. Da-goeneko ideia lehiaketa bat egin dugu, eta hurrengo ikasturtea hasi aurretik, obra egin-da egotea espero dugu.

3. Herritarrek hurrengo lau urteetan euren al-kate izaten jarraitzeko konfiantza ematen ba-didate, hasitako lanarekin jarraituko dut, hainbat proiektu ditugu abian eta. Horietatik aipagarriena herrirako sarbide edo zubi berri bat egitea. Nahiko aurreratuta daukagu Gi-puzkoako Foru Aldundiarekin proiektu hau,

eta zailtasun asko izango baditugu ere, au-rrera ateratzea espero dugu.

4. Zaila da erantzutea. Are gehiago mo-mentu honetan ez dakigulako Bilduk hautes-kundeetan egoteko aukerarik izango duen edo ez. Nire desioa, eta horrela izan behar duela uste dut, gainera, aurkeztea erabaki dugun guztiok hauteskundeetan egotea da, eta horrela izatea espero dut. Hurrengo lau urteetan elkarlanean denok Mendaroren alde lan egitea nahiko nuke.

5. Gure alderdiak askatasun handia ematen digu herrigintzan eta udal kudeaketan jarduteko garaian, guk ezagutzen dugulako gure herria. Hala ere, ez dugu izan eta ez dut us-te izango dugunik, horrelako arazorik. Per-



tsonalki, ni Euzko Alderdi Jeltzaleko kidea naiz, eta horrek, noski, ezingo luke beste modu batera izan nire ustez, eragin zuzena dauka politika ulertzeko daukadan moduan.

6. Gai honetan krisi ekonomikoak eragin zuzena izan du, ez dagoelako inolako mugimendurik promotore pribatuen aldetik. Mendarokoa bezalako udal txiki batentzat ez da

erraza etxebizitza publikoa sustatzea, baina prest gaude beste erakunde batzuekin, Eusko Jaurlaritzarekin batez ere, elkarlanean jarduteko.



**SONIA GARCIA
BILDU**

“Mendarok garai batean izan zuen nortasuna berreskuratu nahi dugu”

1. Parte-hartzea mugatua izan da gure aldetik. Azkeneko legealdi honi begira, esan, bizi dugun krisi honen ondorioz, aurrekontu oso mugatua izan duela orain arteko udal gobernuak, baina, hala ere, iruditzen zaigu gastu handirik egin gabe, badagoela kultur eta kirol ekintzak sustatzerik.

2. Herritarren ordezkari nagusiek herriaren alde lan egitea.

3. Mendarok garai batean izan zuen nortasuna berreskuratzea. Gure hauteskunde programan zehaztuko ditugu egin asmo ditugun proiektuak, eta gure lehentasunak.

4. Apala eta herriari lehiala.

5. Aurkeztutako egitasmoak herriaren onerako baldin badira, alderdia ere ados egon beharko litzateke, herri bakoitzak bere beharrak dituelako. Bestalde, siglak si-

glak dira, baina iruditzen zaigu denon artean egin behar dugula herria.

6. Etxebizitza politika diseinatzeko, hasteko, iruditzen zaigu herritarren hitza zein den jakin behar dugula. Herritarrei galdetu behar diegu etxebizitza berriak eraikitzeke premia ikusten duten, eta ondoren, gazte eta edadetuen beharrak zeintzuk diren aztertuko beharko dugu.



**JOSE ANTONIO RODRIGUEZ
PSE-EE**


“Udalak akordioak egin beharko lituzke beste erakundeekin”

1. PSE-EEren ikuspuntutik, amaitzera doan legealdi honetako gauzarik positiboena zera izan da: Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuak emandako diruari esker, krisi ekonomikoaren garai hone-

tan hainbat obra eta proiektu edo egitasmo garatu ahal izan direla. Era berean, garrantzitsua izan da baita ere Udalean Berdintasunerako I. Plana indarrean jarritzea. Uste dut, hala ere, Mendaroko Uda-

laren ekimen ezaren falta begi-bistakoa izan dela azkeneko lau urteotan, eta baita beste zenbait erakundek Mendaro herriari eskaini dioten arreta eza ere; adibidez, Gipuzkoako Foru Aldundiarena.

Udal ordezkariak aukeratzeko sasoia



2. Inguru naturala babesteko eta herriko inguru libreak txukuntzeko zerbitzu publikoak hobetu beharko genituzke, eta baita, era berean, Mendaron egiten diren ekintza gehienak antolatzen dituzten erakundeei arreta berezia eskaini ere.

3. Gerta daiteke alkatetza lortzea, jakina, baina ia-ia ezinezkoa da hori. Espero dut, hala ere, PSE-EEk aurreko hauteskundee-tan lortu zituen emaitzak hobetzea, eta ge-


ro eta mendaroar gehiago izatea gure politikan sinesten dutenak.

4. Hemen zinegotzi naizen denboran ikusi dudana ikusita, esango nuke udal gobernu abertzalea izango dela, baina batek daki...

5. Mendarorentzako ona bada, eta PSE-EEren izenean aurkezten dudan hauteskunde programan jasotako ideia eta oinarrien kontra ez badoa behintzat, ez dut

uste nire alderdiaren kontra egin beharko dudanik.

6. Etxebizitza berriak modu arrazoizko eta ordenatu batean eraiki behar dira, ingurumena eta herriko bizi-kalitatea errespetatuz. Iruditzen zait Udalak beste erakundee-kin akordioak erdietsi behar dituela, etxebizitza baten beharra duten herritarrek etxe duinak prezio duin eta eskuragarri batean lortzeko aukera izan dezaten.



ANTONIO SAYAGO
PP

“Edozein alderdi demokratikorekin egin ditzake PPk akordioak”

1. Ausartegia iruditzen zait aurreko legealdiari buruzko balorazioa egitea, gure alderdiak ez duelako ordezkariarik izan, eta ondorioz, ez dakigulako zehatz nola jokatu duten. Dena den, garbi daukagu sustatuko ditugun politiken oinarriak zeintzuk izango diren: aurrekontuen egonkortasuna, gastuen zorrozatasuna eta kudeaketa eraginkor bat.

2. Azkeneko lau urteotan bikoiztu baino gehiago egin da Mendaron langabetuen kopurua. Krisiaren ondorio gordinetako bat da, denoi erasaten digun krisi horren ondorioetako bat, eta horrek konponbide zaileko hainbat arazo sortu ditu etxe askotan. Ziurrenik, eta Mendarora soilik mugatzen den kontua izan ez arren, horri buelta ematea izango da gaur gaurkoz Mendarok daukan behar handiena. Bestalde, iruditzen zaigu mendaroren arazoei irtenbide bat ematea izan behar dela Udalaren lehenengo eginbeharretako

bat. Udalak herritarren kexu, proposamen eta ekimen guztiak hartu behar ditu aintzat.

3. Orain arte esandakoarekiko koherente izanik, herritar, erakunde eta talde guztiei zabaldu behar zaie Udala. Komunikaziorako bide guztiak zabaldu behar ditugu, tartean teknologia berriek eskaintzen dizkigutenak, era horretan herritarren ideia, proposamen eta arazo guztien berri iritsi dadin udaletxera. Udala herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izan behar da, eta herritarrek aliatutzat hartu behar dute Udala. Mendarorrei bidea erraztu eta era guztietako erraztasunak emango dizkien aliatua izan behar du Udalak, eta ez zergak kobratu eta hainbat zerbitzu kudeatzen dituen erakundea bakarrik.

4. Herritarrek eurek erabakiko dute nolako udal gobernu osatu nahi duten. PP prest dago edozein alderdi demokratikorekin elkarlanean aritzeko. Ez daukagu inolako le-

hentasunik, ezta inolako loturarik ere. PPk edozeinekin egin ditzake akordioak, beti ere alderdi demokratikoekin, jakina.

5. Ez dut uste inori aurre egin beharra izango dugunik, besteak beste inork ez daukalako arrazoi osoa. Gehiago da pertsuasio kontua. Mendarorentzako ona eta mesedegarria bada, ez dut etsiko nire alderdiaren babesa lortu arte.

6. Etxebizitzen prezio garestia dela eta, herritar askok, gehienek ez esatearren, ezinezkotzat ikusten dute etxe baten jabe egitea. Eta are gehiago orain, kezka handiko eta egonkortasun ekonomikorik gabeko sasoiari. Hori dela eta, alokairuko babes ofizialeko etxebizitzen alde egingo dugu, iruditzen zaigulako aukera onena direla gazteentzako, arazo gehien dituztenentzako alegia. Alokairuan jarriko ditugu etxeak, baina etxea erosteko aukera izango dute gero.





“Herriari begirako politika” egingo duela agindu du Aralarrek “Lanerako konpromisoa eta gaztetasuna ekarriko ditu Aralarrek”, dio alkategaiak

Joanes Rodriguez Aralarreko alkategaiak alderdikideen babesa jaso zuen martitzenean Elgoibarren egin zuten ekitaldian. “Poltsikoari begirako politika” barik “herriari begirako politika” egingo dutela agindu zuen Rodriguezek, eta Elgoibarrera Aralarrek, besteak beste, lanerako konpromisoa eta gaztetasuna ekarriko dituela nabarmendu zuen. Legealdi honetan hirigintzan gauza asko egin direla esan zuen Aralarreko alkategaiak, baina herritarrentzako zerbitzuetan apenas egin dela ezer. Hain justu, horixe da Aralarrek hauteskunde programan lehenetsitako gaietako bat: herritarrentzako zerbitzuak hobetzea. Era berean, hezkuntzari garrantzia berezia emango diotela agindu zuen Rodriguezek, mundua aldatzeko armarik eraginkorrena hezkuntza dela arrazoituta. Gazteak ere gogoan izan zituen: “Gazteengan sinistu ezean jai daukagu. Herriko jendeak herrian bizi behar du, herriaren etorkizuna eraiki ahal izateko”



Bihar ekitaldi politikoa egingo du Bilduk Plaza Handian

BilduElgoibarrek ekitaldi politikoa antolatu du zaturako. Plaza Handian izango da ekitaldia, 12:30ean. Antolatzaileek dei egin diete herritarrei “aldaketaren matazara biltzeko”. Ekitaldia musika eta bertsoekin girotuko dute.

Arratsaldean, berriz, ekitaldi nazionala egingo du Bildu koalizioak Barakaldon, BECen, eta Elgoibarko lantaldeak autobusak antolatuko ditu ekitaldira joan nahi dutenentzako. Ekitaldia bera 17:30ean hasiko da, eta autobusa 16:30ean abiatuko da Elgoibartik, Txankako zubitik. Interesa dutenek Lanbroa, Iturri edota Jai-Alai tabernetan eman dezakete izena.

PSE-EEK bertan behera laga zuen eguenean egitekoa zuen kanpainako ekitaldia, Murtziako lurrikarako biktimen memorian



PSE-EEK bertan behera laga zuen eguen goizean egitekoa zuen hauteskunde kanpainako ekitaldia, Lorcan (Murtzia, Espainia) izandako lurrikara zela eta. Ritcher eskalan 4,5 eta 5,1 graduko bi lurrikara gertatu ziren eguaztenean Lorcan, eta zortzi lagun hil eta dozenaka zauritu ziren.

Ovidio Campello PSE-EEKo alkategaiak gain, Miguel Buen Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko hautagaiak, Xabier Garmendia Jaurilaritzako Industria eta Energia sailburuordeak eta Paco Egea Euskal Trenbide Sareako zuzendari nagusiak hartu behar zuten parte Asmaolan egitekoa zuten ekitaldian, eta ondoren larrosak banatu behar zituzten herriko kaleetan.

PSE-EE
PSOE



Eman botoa

LEHENA, ELGOIBAR

Ovidio Campello

HAUTAGAIA



PSE-EE
PSOE



Eman botoa

miguel**buen.es**

GIPUZKOAKO DIPUTATU
NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

Gipuzkoa ^{ren}
txanda da



bozkatu



Alfredo Etxeberria



Elgoibar

Elgoibar

**ONENA
EMATEKO GARAIA**



IREKI BIDEA EZKERRARI

Bozkatu



aralar

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI



www.ezkerbatua-berdeak.org

badago **elgoibar**
hobetzerik

BOZKATU



EzkerBatua
Berdeak

[zerbait egin daitekeela pentsatzean, egia bihurtzen da]
F. Hebbel

bilduelgoibar

ekitaldia

maiatzak
14

PLAZA HANDIAN

12:30ean

www.bildu.info/elgoibar

eman
botoa



Elgoibar Urban Show iragartzeko bideoa grabatuko dute Elgoibarren ekainaren 11n, Hip-Hoparen Egunean

San Bartolome kalea jendez bete nahi dute antolatzaileek grabazio egunean

Hip-hop eguna antolatu du Maria Escobedo Dance&Smile taldeko arduradunak, Elgoibarko Udalaren eta Elgoibarko Kirol Patronatuaren laguntzarekin. Egitarau zabala antolatu dute egun horretarako, baina zalantzarik gabe, arratsaldean San Bartolome kalean egingo dute grabazioa izango da ekitaldirik garrantzitsuena. Elgoibar Urban Show ikuskizuna iragartzeko bideoa grabatuko dute 16:00etatik 18:00ak bitartean, eta antolatzaileek grabazioan parte hartzea deitu dituzte herritarrek. "Elgoibartar guztiek parte hartzea nahi dugu. Adinak ez dio inporta: haurrak, gazteak, adinekoak... Ez da beharrezkoa dantzan jakitea, eta ezta arropa jakin batekin etortzea ere. Ahalik eta elgoibartar gehien batzea nahi dugu", azaldu zuen Maria Escobedok Hip-hoparen eguna aurkezteko emandako prentsurrekoan.

Goizean goiz hasiko dira, baina, eguneko ekitaldiak. 10:00etatik 12:00ak bitartean, break dance tailerra eskainiko du Crazy Hospital taldeko kide batek Olaizaga kiroldegian, 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzat. Tailerrean izena emateko, Dance&Smile taldeko ikasleek bost euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek hamar eu-



Iñigo Cearsolo, Maria Escobedo eta Dance&Smileeko ikasleekin.

ro. 12:00etatik 12:30ak bitartean, berriz, Dance&Smile taldeko ikasleek erakustaldi bat emango dute kiroldegian bertan, guraso eta laguntzako, eta ondoren, 13:00ak aldera, elkarrekin bazkalduko dute kiroldegiko jatetxean [bazkarirako tiketak hamar euro balio ditu]. Goizeko ekitaldi hauetakoren baterako nahiz bazkaritarako ize-na eman nahi dutenek 679 237 611 telefono zenbakira deitu dezakete, edo eta m_danceandsmile@hotmail.com helbidera idatzi.

Foru Aldundiaren Kosmodisea zientzia lehiaketan saritu dute Elgoibar Ikastola



Kosmodisea zientzia lehiaketan saritu dute Elgoibar Ikastola. Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuaren ekimena da Kosmodisea, eta pertsona ekintzailea izateko balio eta trebetasunak bultzatzen ditu. Aurten, Elgoibar Ikastolako bederatzita talde aritu dira, LH3, LH5, DBH1 eta DBH3 mailetakoa, eta horietatik lauk saria jaso dute. Hona hemen Elgoibarko irabazleak: Lehen Hezkuntzako 3. mailan: Atxolin taldeak 1. saria jaso du, eta Moruk bigarren saria. Lehen Hezkuntzako 5. mailan: Elvi taldeak lehenengo saria eta Hogeitahiru taldeak bigarren saria.

Gipuzkoako txapelketan estreinatu da Mikel Olaizola

Orioko Herri Ikastolako aretoan eman zitzaion hasiera aurtengo Gipuzkoako bertsolari txapelketari, domekan. Bi saio jokatu ziren, eta arratsaldeko lehiatu zen Mikel Olaizola elgoibartarra. 200 lagun inguru batu ziren Herri Ikastolako aretoan, oholtzara igo ziren sei bertsolariak entzutera: Mikelez gain, Ibai Esoainek, Nekane Zinkunegik, Antton Fernandezek, Mikel Artolak eta Gorka Azkaratek jardun zuten kantuan, eta Ibai Esoainek batu zituen puntu gehien: 287. Mikel Olaizolak bosgarren egin zuen, 261 punturekin. Orain, Amezketan izango du hurrengo kanporaketa, hilaren 28an.



Bilboko Masa Coral del Ensanche taldeak 'Luisa Fernanda' zartzuela eskainiko du gaur, Herriko Antzokian

Hiru ataletako komedia lirikoa da 'Luisa Fernanda' zartzuela

Bilboko Masa Coral del Ensanche taldeak Federico Moreno Torrobaren *Luisa Fernanda* zartzuela eskainiko du gaur, 20:30ean, Elgoibar-ko Herriko Antzokian. Luisa Fernanda hiru ataletako komedia lirikoa da, Torrobaren laugarren zartzuela eta bere lanik arrakastatsuen zaurrenen. 1932. urteko martxoaren 26an estreinatu zuten Madridgo Calderon Antzokian, eta 10.000 aldiz errepresentatu dute gutxienez. Zartzuela honetako istorioa Madril-eko kokatuta, Isabel II.aren agintaldian, hain justu ere 1968ko iraultzaren

aurretikoan, eta bukatu, berriz, Extremadurako larre batean amaitzen da.

Bilboko Masa Coral del Ensanche taldea, berriz, aski ezaguna da Elgoibarren, aurrez ere izanak direlako herrian, eta Herriko Antzokia bete egin dutelako etorri diren aldira. 1903. urtean sortu zen talde hau, eta zartzueletan dago espezialdua.

Zartzuela ikusteko sarrerak Servikutxako kutxazainen bidartez, www.kutxa.es webgunean, 943 001 200 telefono zenbakian edota Herriko Antzokiko lehiatilan bertan erosi ahal izango dira.



Galiziaren itxura hartu du Elgoibarrek asteburuan



Galiziako zapore, usain eta doinuak nagusitu dira asteburuan. Izan ere, Semana Das Letras Galegas jaiak ospatu dituzte Elgoibarko galiziarrek. Elgoibarko Galicia Etxeak antolatutako jaietan, literaturaz gain, Galiziako gastronomia eta musika nabarmendu ziren. Urtero bezala, Galiziako jaki tipikoak dastatzeko aukera egon da asteburu osoan Plaza Txikian egon den karpan. Irixoko gaita taldeak, berriz, Galiziako doinuak jantzi ditu ospakizunak. Gainera, Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideekin batera folklore ikuskizuna ere eskaini zuten zapatuan. Hori baino gehiago dira, baina, jai hauek galiziarrentzako. 1963an antolatu zuten estreinakoz Dia das Letras Galegas edo Galizierazko Letren Eguna izeneko ekitaldia Literaturaren Real Academia Galega erakundeak, galizierazko sortzaileak eta hizkuntza haren erabiltzaileak saritzeko. Aurten, Lois Sanchez Pereiro idazle eta olerkaria omendu dute Galizierazko Letren Egunean.

Barreterapia ikastaroa, hilaren 25ean

Taupada antzerki taldeak barreterapia ikastaroa antolatu du hilaren 25erako. Sei orduko ikastaroa izango da, Aubixa aterpetxean, eta izena ematen dutenek hant bertan bazkaltzeko aukera izango dute. Ikastaroa goiz eta arratsaldean egingo da. Goizean, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, 15:30etik 18:30era. Informazio gehiagorako: 656 416 677 (Edu-
ne).

Udalak diruz lagunduko die UEUren udako ikastaroak egin nahi dituztenei

Udako Euskal Unibertsitateak argitaratu berri du aurtengo udako ikastaroen eskaintza (www.ueu.org). Ikastaroak, Baionan, Iruñean eta Eibarren egingo dira, eta Elgoibar-ko Udalak diruz laguntzak emango ditu ikastaroetarako. Euskara Batzordeak matrikula osoa ordainduko die ikasle, langabetu, pentsiodun eta jubilatu elgoibartarrei. Era berean, lanean dihardutenei matrikularen erdia ordainduko die. Informazio gehiagorako: 943 744 366.

Hirugarren mailari eusteko aukera du oraindik Haundik, Lagun Onak taldeari 2-3 irabazi ostean

Zaleen babesa ziurtatzeko, ikasleek doan izango dute bihar Mintxetara sartzea

Azpeitiko Lagun Onak taldeari 2-3 irabazi ostean, Hirugarren mailari eusteko aukera dauka oraindik Haundik. Une honetan, sailkapeneko 17. postuan daude elgoibartarrak, 36 punturekin, jaitsiera postuetatik kanpo. Aurten, baina, hiru beharrean, lau talde jaitsiko dira mailaz. Izan ere, Bigarren B mailan dagoen Barakaldok maila galdu du matematikoki, eta datorren urtean Hirugarren mailan jokatuko duenez, lau talde jaitsi behar dira Preferente mailara. Hortaz, postu horri eutsi behar dio Haundik maila ez galtzeko, eta gainera, hori ez da nahikoa izango. Horrez gain, play-off-ak jokatzeko sailkatu diren lau taldeetako batek (Amorebieta, Audio, Sestao River eta Cultural Durangok) mailaz igotzea lortu beharko du-eta.

Loiolaren mutilek bihar jokatu dute Ligako azken partida Mintxetan, Portugaleteren kontra. Hil ala biziko partida izango da Haundirentzat, mailari eusteko aukerekin jarraitzeko CD Santurtzi baino gorago amaitu behar baitu, derrigorrez, sailkapenean. Elgoibartarrek bizkaitarrek baino puntu bat gehiago dute une honetan eta gol-averagea ere alde dute. Hortaz, Portugaletek azken jardunaldian lortzen duen emaitza bera lortuta, sailkapenean Santurtziren gainetik amaituko luke Haundik. Zaleen babesa ziurta-



Artxiboko irudia

tzeko, Elgoibarko eta Mendaroko ikasleak doan sartu ahal izango dira bihar Mintxetan.

Morkaiko Eguna antolatuta dute hilaren 21erako



Morkaiko mendizale elkarteak Morkaiko Eguna antolatuta du maiatzaren 21erako, eta mendizaletasunaren 'festa' izatea nahi dute antolatzaileek.

Elgoibarko mendi itzulirekin batera, mendi itzulitxoa antolatuta dute aurten, umeentzako eta gazteentzako. Plaza Handitik iritengo dira 9:00etan, eta Idotorbe-San

Pedrorra igoko dira. Hiru-lturri eta Morkaiko pasatu ondoren, AiestiaSan Migelera iritsiko dira, eta han, mendi itzuliko partaideei animoak emango dizkiete, mokadutxoa jaten duten bitartean. Ondoren, herrira jaitsiko dira, eta Plaza Handian bazkalduko dute. Bazkalostean, Finalista Eguneko dominak banatuko dituzte.

Izena emateko epea irekita dago. Nahi duenak elkarteak Errosario kalean duen egoitzan eman dezake izena, astelehen eta eguenetan (19:00-20:30). Internet bidez ere egin daiteke izenematea, morkaiko@morkaiko.net helbidean.

Mendi itzuliko prezioa 7 eurokoa da bazkideentzat (egunean bertan, 12 euro), eta gainerakoentzat 10 eurokoa (egunean bertan, 15 euro). Mendi itzulitxoa izena emateko, bestalde, 18 urtetik beherakoek 2 euro ordaindu beharko dituzte, (egunean, 5 euro) eta arduradunak 5 euro (egunean, 8 euro).

Txirrindulari jantziak

Kirol Patronatuak Elgoibarko izena daramaten txirrindulari jantziak jarriko ditu salgai berriro. Interesatuak kiroldegira joan daitezke, jantzien neurriak ikusteko. Ardura-dunek jakinarazi dutenez, aurreko urteetako baina material hobea dauka aurtengo ekipazioak, bio racer oihalarekin eginikoa, alegia. Jantziaren prezioa 70 eurokoa da, (maillot manga motza eta kulote motza). Eskaera egiteko epea maiatzaren 30ean amaituko da.

Futbol 7 txapelketa

Debabarreneko Futbol 7 txapelketan izena emateko epea maiatzaren 30ean amaituko da. 1993. urtea baino lehen jaiotako edonork hartu dezake parte, eta talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu. Gehienez, hogei taldek hartu dezakete parte.

Lendinez bigarren eta Lazkano hirugarren, Eibarko duatloian

68 mutilek eta 11 neskek hartu zuten parte

Ainhoa Lendinezek bigarren egin zuen Eibar-ko duatloian, eta gainera, Gipuzkoako Duatloian Sprint Txapelketa irabazi zuen, proba berean. Korrikalari elgoibartarrak 1:18:03ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko.

Gizonezkoetan, bestalde, Iñigo Lazkano mendararrak hirugarren egin zuen, 1:08:46ko denborarekin.

Gutzira 68 mutilek eta 11 neskek hartu zuten parte. Korrikalariak bost kilometro egin zituzten korrika lehenengo, ondoren 25 kilometro bizikletan, eta amaitzeko, 2,5 kilometro korrika.



Andoainen kontra jokatu du Elgoibarrek



Lagunak taldeko pilotariek irabazi egin dute Herriarteko txapelketako lehen kanporaketa, Soroluzeren kontra. Sei partidatetik lau irabazi dituzte elgoibartarrak, eta bigarren kanporaketarako sailkatu dira. Gaur gauean jokatu dituzte jostu aneko partidak Ikastolako frontoian, Andoainen kontra. 10 Bai taldeak, bestalde, lau t'erdiko txapelketa antolatu du. Joan zen domekan, 22-20 irabazi zion Ulaziak Porturi. Aste honetan, Armuetak Porturen kontra jokatu du, eta Altzola Berasetak Gaizka izango du aurrez-aurre. 11:30ean hasiko dira partidak.

Alkortak pauso garrantzitsua eman du

Alkorta taldeak 31-27 irabazi zion joan zen asteburuan Egiari, eta mailaz igotzeko bidean pauso garrantzitsua eman du garaipen horrekin. Finalerako lau partida falta dira, eta Alkortako senior mutilak lehen postuan daude sailkapen nagusian. Sanloko arduradunek esan dute datozen bi partidak oso garrantzitsuak izango direla, eta zaleen babesa eskatu dute. Asteburu honetan Gasteizen jokatu dute Corazonistas taldearen kontra, eta hilaren 21 ean Bilbon, Escolapiosen kontra. Partida horretara joateko autobusa jarriko du klubak, doan.



EMAITZAK

FUTBOLA

Lagun Onak 2 – Haundi 3 (3. maila)
Elgoibar 2 – Orioko 1 (Erreg.)
Union Txiki 3 – Elgoibar 0 (Ohorezko jub.)
Allerru 1 – Elgoibar 2 (Kad. A)
Elgoibar 1 – Ikasberri 2 (Kad. B)
Elgoibar 1 – Zumaiako 4 (Ohorezko inf.)
Lagun Onak 2 – Elgoibar 4 (Inf. Txiki)

ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 22 – Soroluze 19 (Kad.)
Elgoibar 22 – Soroluze 3 (Jub.)
Elgoibar 18 – Soroluze 22 (Nag.)
Lau t'erdiko Udaberri txapelketa
Lagunak 22 – Beloki 15 (Nag.)
Lagunak 17 – Eibar 22 (Nag.)

ARETO FUTBOLA

Bilbo 2 – Concepto Createch 5 (1. maila)
King-Kong Elg. 4 – Gamon 3 (Jub.)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 31 – Egia 27 (Sen. mut.)
Ordizia 23 – Beristain Elg. 30 (Jub. mut.)
Bidaxoa 30 – Txarriduna Elg. 23 (Kad. mut.)
Usurbil 21 – IMH Elg. 21 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 17 – Amenabar 23 (Inf. mut.)
Astigarraga Elg. 16 – Ereintza 14 (Inf. neska.)
Jauja 19 – Tecnifuelle Elg. 39 (Sen. neska.)
Grupo Eibar Elg. 38 – Aiala 12 (Jub. neska.)
Ereintza 15 – Grupo Eibar Elg. 37 (Jub. neska.)
Bera Bera 25 – Lauko Elg. 21 (Kad. neska.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 14

16:00 Concepto Createch – Jarrilleros (1. maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 14

13:00 Elgoibar – Aurrera Ondarroa (Ohorezko jub.)

18:00 Elgoibar – Portugalete (3. maila)

Domeka, 15

12:00 Elgoibar – Real Union (Inf. Txiki)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

10:00 Ikus Elg. – Bera Bera (Inf. neska.)

11:30 IMH Elg. – Pulpo (Kad. neska.)

17:30 Lauko Elg. – Aloña Mendi (Kad. neska.)

19:00 Tecnifuelle Elg. – Ereintza (Sen. neska.)

Domeka, 16

9:15 Grupo Eibar Elg. – Bergara (Jub. neska.)

10:45 Beristain Elg. – Ereintza (Jub. mut.)

ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barbakua, 13

20:45 Elgoibar – Andoain (Herriarteko txapelketa)

LANA

ESKAERA

- 50 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ **677 097 015 (Carmen)**
- Emakumea lan bila. ☎ **943 741 977 / 648 824 846**
- Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **681 018 451**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo umeak nahiz nagusiak zaintzeko prest. Orduka egingo nuke lan. ☎ **618 052 967**
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. ☎ **652 715 908 / 943 742 201**
- Emakumea etxeko lanak egin eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Geriatria tituluarekin. ☎ **617 567 336**
- Neska edozein lan egiteko prest, interna edo orduka. ☎ **636 581 194**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Abuztuan interna moduan aritzeko prest. ☎ **646 977 562**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Baserrian ere lan egingo nuke. ☎ **668 212 060**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **618 163 061**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **646 464 300**
- Emakumea umeak edo helduak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **616 690 415**
- Gizonezkoa eraikuntzan edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **680 212 060**

- Emakumea garbiketa lanak egin edo tabernan lan egiteko prest. Umeak edo nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ **609 148 861**
- Emakume gaztea pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko prest. Garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **608 474 923**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **635 313 375**
- Esperientziadun emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **626 914 904**
- Nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. ☎ **663 115 241 (Bebby)**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **648 736 067**
- Gizona txofer lanetarako prest. B1 gidabaimena daukat. ☎ **650 538 274**
- Esperientziadun neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **648 603 029**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ **680 808 125**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, orduka. ☎ **660 651 569**
- Mutila lanerako prest. Nagusiak zaintzen, mezulari edo bestelako lanen batean ariko nintzateke. ☎ **682 384 433**

ESKAITZA

- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ **943 030 150**
- Zerbitzaria behar da, egun erdirako. ☎ **628 528 268**
- Tabernarako zerbitzaria behar da. ☎ **943 741 600**
- Ingeleseko irakasle bila nabil. Klase partikularrak arratsaldez jaso nahi ditut. Ander. ☎ **669 645 514.**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **618 734 000**
- Etxebizitza alokagai San Bartolome kalean. 3. pisua, igogailurik gabe. Oso argitsua. 350 euro hilean. ☎ **629 555 808**
- Emakumeak bi logelako pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **626 641 318**
- Atikoa salgai Altzolan, Donostia kaleko 4an. 42.000 euro. Negoziagarria. ☎ **638 700 639**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **648 603 029**
- Conil. Pisua alokatzen da. Hiru logela eta garajearekin. ☎ **653 733 457**
- Pisua alokatzen dut Ramales herrian (Kantabria). As-te Santua eta opor denboraldietan. Txalet ederra dugu alokairuan. ☎ **653 733 457**
- Apartamentua alokatzen dut Mendaron. Altzariekin, dena kanpoaldera. ☎ **636 631 632**

GARAJEAK

- Bi garaje itxi saltzen dira Jausoro Plazan. ☎ **943 741 129**

BESTELAKOAK

- Perikitoak ihes egin du, San Bartolome kalean. Urdin argia eta zuria da. ☎ **615 761 198**

MERKATU TXIKIKO OHARRA

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)

Autoak saltzea: 12 euro.

Bestelakoak: 6 euro

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Erretratu bakarreko agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**Neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



• Zorionak, **Oier!** Ondo pasa astelehenean! Hamar muxu potolo, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Naroa**, gaur 5 urte bete dituzulako. Familiako guztien partez, ondo pasa!



• Zorionak, **Eneko**, 8 urte bete dituzulako. Aittitta-amama eta gurasoen partez, muxu asko!



• Zorionak, **Yuri**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Familiako guztien partez, eta bereziki zure arreba Idoiaren partez.



• Zorionak, **June**, gaur 8 urte beteko dituzulako. Aita, ama, eta zure ahizparen partez.



• Zorionak, **Maria**, astelehenean 3 urte egingo dituzulako. Nora, Ane, Naia eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unax**, igandean 7 urte betetzen dituzulako. Muxu pilo bat etxekoen partez. Aupa, txirindulari!



• Zorionak, **Izaro**, maiatzaren 9an 7 urte egin dituzulako. Zure neba Urkoren, gurasoen eta familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Alain**, hurrengo asteartean 5 urte beteko dituzulako. Familiako partez, eta bereziki zure arreba Ainararen partez.



• Zorionak, **Asier**, hilaren 17an 2 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean iritsi da zuen eguna. Primeran pasatuko dugulakoan, muxu bana zuen koadrila eta familiako partez.



• Zorionak, **bikotel** 48 urte pasau dira ezkondu zifatenetik, baiña oraindik alkarri begira zaude. Segi holaxe luzaruan! Imanol, Iñaki, Maite, Elsa eta Nahia.



• Zorionak, **printzesa**, atzo 6 urte egin zenuelako. Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Maddiren partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen laugarren eta zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **hirukote**, 1,3 eta 6 urte betetzen dituzuelako hilabete honetan. Familiako guztien partez.

Aukera polita!
Baserria salgai Sorluzen

* 250 m² eraberrituta, 125 m² ko bi etxebizitzia egiteko aukera.
 * Guztira 150 m² teilatupean.
 * Oardala guztiz berritua.

679 155 900 (Mari Jose)

13 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa
2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Madalako parkean.

Musika

20:30 Zartzuela
Masa Coral del Ensanche taldeak *Luisa Fernanda* obra taularatuko du, Herriko Antzokian.

14 zapatua

Hauteskundeak

12:30 Bilduren ekitaldi politikoa
Plaza Handian.

15 domeka

Kirola

10:00 Mendi irteera
Ikastolako gurasoek antolatuta, ikasle, irakasle eta gurasoak Urbiara joango dira.

Musika

12:00 Doinuzahar abesbatza
Zubibaik antolatuta, Durangoko Doinuzahar abesbatzak kontzertua eskainiko du Altolako frontoian.

Musika

12:30 Udal Musika Banda
Kontzertua, Herriko Antzokian.

16 astelehena

Guraso bilera

19:00 Zaintza zerbitzuari buruzko bilera
Herri Eskolako guraso elkarteak eta Atxutxiamaiak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

17 martitzena

Bertsogintza

18:30 Ikasturte amaierako jaialdia
Herriko Antzokian.

18 eguaztena

Bertsogintza

18:30 Ikasturte amaierako jaialdia
Herriko Antzokian.

19 eguena

Ipuin kontalaria

17:00 Jon Zabaleta ipuin kontalaria
Gotzon Garate Udal Liburutegian.

OKINDEGIA

15 domeka IBARRENEA

FARMAZIAK (24 orduz)

13 Yudego
14 Zabaleta
Goizez: Garitaonandia-Bidasolo
15 Zabaleta
16 Etxeberria (*Errosario*)
17 Ibañez
18 Garitaonandia-Bidasolo
19 Etxeberria (*Santa Ana*)
20 Fernandez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384



Maiatzaren 28an
URDAIBAIRA

FAMILIA IRTEERA.

Bazkideek 6 euro, eta gainerakoek 10 euro.
Izenemateak maiatzaren 18ra arte. Informazio gehiago Ludotekan

Gaztelekuko udalekuak prest dauzkagu!!!

GORLIZERA GUREKIN

ETORRI NAHI?
Izenemate epea maiatzaren 13tik ekainak 11ra.



ZINEA

«Torrente 4»

14, zapatua: 19:00/22:15
15 domeka: 19:00
16, astelehena: 21:30

«Torrente 4» Zuzendaria: Santiago Segura. Espainia, 2011. Iraupena: 92 minutu. Generoa: Komedia. Aktoreak: Santiago Segura (Torrente), Kiko Rivera (Julito), Tony Leblanc (osaba Gregorio).



BARREN astekarirako

KAZETARIA BEHAR DA

ESKAITZEN DA:

- Jardunaldi osoko kazetari lanpostua, amatasun baimena betetzeko. Luzatzeko aukera.

ESKATZEN DA:

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Kazetaritza testuak idazteko gaitasuna.
- Lantaldean lan egiteko gaitasuna.
- Informatika ezagutzak: Quark Xpress.


BALORATUKO DA:

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.

Interesatuek bidali curriculumua maiatzaren 18rako.

Elgoibarko Izarra - Ubitarte 4, beheka, 20870 Elgoibar
Barren astekaria: barren@elgoibarkoizarra.com
Informazio gehiagorako: (943 744 112, Ainhoa)





% 100erainoko FINANTZAKETA ESKAINTZEN DUGU AZKEN ETXEBIZITZAK MENDARON

- ◆ **2 eta 3 logelako pisuak eta duplexak**
- ◆ **Material bikaineko etxebizitzak**
- ◆ **Horma-armairuak**
- ◆ **Sukaldea hornitua**
- ◆ **Abantaila fiskalak: B.E.Z.-ik gabe (OTZ %2,5 edo %4)**
- ◆ **Prezioak: 193.300 eurotik aurrera (prezio barnean etxebizitza, trastelekua eta garajea)**

**Gure etxebizitzetako bat erosten baduzu, logela nagusiko altzariak
oparituko dizkizugu edota txeke opari bat bestela**

Eska ezazu etxebizitzeari buruzko informazioa:

Gure telefono zenbakian: 943 249 516

Web orrian: www.aiksa.com

edota gure bulegoan: Easo kalea 8, 20006 Donostia





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabiloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lfiodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalaiek
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

